

a u z o z a u z o
herrera

Elena Arrieta, auzoaren kezkei erantzun nahian

Herrerako Herri-Pe Auzo Elkartearen Lehendakaritza Elena Arrietaren esku dago duela urte asko. Auzotegiko lokaleko idazkaritza txiki batean lan egiten du Elenak egunero-egunero, gure auzoko bizitza kalitatea hobetzeko asmotan.

ZEINTZU IZAN DIRA HERRIPEK HERRERAKO PERIARI (PLAN BEREZIA) JARRI DIZKION ALEGAZIOAK?

Orokorrean esan daiteke Herri-Pek, Auzo Elkar-te bezala, kontutan hartu dituela herrertar bizilagunen kezka. Hori dela eta hiru dira gehien kezkatzen gaituzten gaiak: alde batetik uko egin diogu Txingurrira doan bideari honek ez baitu konpontzen inolako trafiko arazorik. Bigarrenik aurreko alegazio hau kontutan hartuz, Zubi-Pe,

Aranburu, Lasa-Enea eta Iturgain etxeak mantentzea eskatzen da eta hiru-garrenik beharrezkoa ikusi dugu Arrubi (Arrobi-Txulo) zonaldea P.E.R.I honetan sartzeari honetara suposatzen duen lasaitasun arkitektonikoagatik.

ALEGAZIOAK FINKATZEKO ORDUAN BESTE PROPOSAMENIK AURKEZTU AL DIOZUE UDALARI?

Bai noski, alegazio bakoitzaren arrazoia ematearekin batera ordezko irtenbidea eman behar zaio arazo bakoitzari.

ZEINTZU IZAN DIRA IRTENBIDEAK?

Herrera Pasealekutik Txingurrira doan bideari uko egitearekin batera Herri-Pek A8 autopistaren liberalizazioa eskatzen du. Bide batez Landarro inguruan autopista irteera proposatzen dugu Altzako bizilagunak Herrerratik pasa ez daitezen.

Etxeak botatzeari dagokionez, aurreko irtenbidea onartu ezker ez litzateke behar eta gainera ez dugu oso argi ikusten etxebizitzak non, noiz eta nola izango diren. Hau



Roxali Fernandez

dela eta alegazioetan eskatu dugu lehenik etxeak eraikitzea, prestatzen eta gero etxeak botatzea.

Azkenik Arrubi, kirol ingurunea bilakatu nahi dugu baina ez Udalak prestatutako ideiarekin baizik eta rugbya eta beisbola alde batera utzirik Herri Kirolak proposatzen ditugu jolasleku honetarako.

LARRAITZ GARMENDIA. (TFNOA: 391267)

Herrera auzoak Plan Orokorrari aurkeztu dizkion alegazioez solasaldia izan dugu Elenarekin.

Bidebietako Gazte

Lekuak ekintza ugari antolatu ditu datorren asterako: hilaren 18an, Hanburgoko gazteekin Olinpiadak.

Hilaren 19, 20 eta 21ean Oartzuneko harrietan ibiliko dira eskalatzen.

Uztailaren 27, 28 eta 29an Leitzarnera joateko asmoa dute bizikletaz akanpada egiteko.

Informazio gehiago nahi izan ezker 394890 telefonora deitu.

Z

**CALZADOS
ZABALO**

Oinetakoak - Poltsak
eta osagaiak

Larratxo 16, ☎ 39 14 15 DONOSTIA